



Ezohiko festa egunak

Ekintza sinboliko baina koloretsuz jantzi dute Lasarte-Oria zenbait eragile eta herritarrek aurtengo jai berezietan / 2-4

Uztaileko agenda

Lasarte-Oriako Udalak kultur emanaldi sorta bat antolatu du hilabete amaierara arte / 6

Uztailaren 12ko
hauteskunderen
kanpainan murgilduta
dabiltza Lasarte-Oriako
alderdi politikoak ere / 9

Partida ederra eginda
eta garaipena
eskuratuta, Arteaga II
pilotaria kantxetara
buelatu da / 10



Ges
ASEGURUAK



Gora Lasarte-Oria!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



Sorginak agertu dira aurten ere

Jairik gabeko sorginkeriatan

Orain artekoekin alderatuta erabat ezberdinak izan dira aurtengo sanpedroetako Sorgin Jaiak. COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz, urteroko festa formatua bertan behera uzteko erabakia hartu dute antolatzaileek, baina zenbait ekintza sinboliko egin dituzte egun hauetan. Ekainaren 25ean Pijama Eguna egin dute, eta Andatza plazatik abiatutako Sorgin Martxa batekin, erdigunea zeharkatu eta Okendora iritsi dira. Bertan txupinazoa egin dute, baina suzuria zerurantz jaurti beharrean, nork bere gorputza erabili du. Ekainaren 26a, berriz, Presoen Eguna izendatu eta bi ekintza egin dituzte: Txaldatxurrera irteera eta manifestazioa. Sorgin Eguna izan da larunbata, eta egun horretan ere girotu dute herria; pintura pote hutsak gerrian lotu, eta danborrada egin dute. San Pedro bezperan, berriz, Mus Txapelketa egin dute Elebeltzen. San Pedro egunez egin dute azken ekitaldia; 2021. urteko festa ereduaren inguruko hausnarketa egin dute eta bideo emanaldiarekin amaitu dute aurtengo egitarau sinbolikoa.



Sorgin Martxarekin herria gurutzatu eta Okendora iritsita, txupinazoa irudikatu dute bertan bildutako gazteek. TXINTXARRI



Ekainaren 26 goizean, Presoen Egunean, Txaldatxurrera joan ziren zenbait herritar. SORGIN JAIK



Andatza plazatik abiatuta, Sorgin Martxarekin eman diote hasiera Sorgin Jaiak aurtengo



Ekainaren 28ko Mus Txapelketako garaileak: Ibai Zamora eta Jokin Hidalgo. SORGIN JAIK



egitaruari. Dantzan aritu dira, pijamak jantzita, Okendo plazara iritsi arte. TXINTXARRI



Presoen Egunean manifestazioa egin dute herrian barrena. Horien eskubideen aldeko aldarrikapena izan da nagusi. TXINTXARRI



Presoen Eguna izendatu dute ekainaren 26a eta hainbat ekintza egin dituzte. TXINTXARRI



Megafono batean musika jarrita danborrada egin dute herriko gazteek erdiguneko kaleetan barrena. TXINTXARRI



Aurtengo San Pedro eguna baliatu dute datorren urteko festetaz hausnartzeko. SORGIN JIAK



Danborradarekin herriko kaleak zeharkatu eta gero, Okendo plazara iritsi eta Trumoi tabernari omenalditoxa egin diote. TXINTXARRI



Okendo plazan elkartu dira zenbait herritar eta Sorgin Dantza dantzatu dute, giro ederrean. TXINTXARRI

Sanpedrorik ez, jarduerak bai

Zenbait ekintza egin dituzte

Ekainaren 28a egun handia da Sorgin Dantza maite dutenentzat, orduan ateratzen baitira lasarte-oriarrak blusa grisa eta zapi zuriak soinean, zortzikote gazte zein helduaren atzetik, herria alaituz eta sorginduz. Aurten ezin izan da ekitaldi hori ohiko moduan ospatu, baina herritar talde batek ezin izan dio gorputza astintzeko gogoari eutsi eta Okendo plazara joan da, bozgorailu eta guzti. Bi ilara osatu, eta Sorgin Dantza dantzatu dute. San Pedro eguneko mezak ere ez du hutsik egin aurten. COVID-19aren hedapena saihesteko neurri guztiak kontuan hartuz, San Pedro eguneko herri mezara joan dira lasarte-oriatar ugari ekainaren 29an, udal korporazioko zenbait ordezkari tartean zirela, herriaren zaindariaren izena daraman parrokiara. Juan Luis Murua eta Felix Garitanok gidatu dute elizkizuna, eta, ohi bezala, txistulariek eta Erketz EDTko dantzariak girotu dute goiza. ATLO danborrada taldeko kideek ezin izan dute aurtengo kale-ekitaldian parte hartu, baina urteroko afarian elkartu dira, Abend kafe antzokian. Bapo afaldu eta gero, euren erreperatorioko hainbat pieza jo dituzte, Lasarte-Oriako ereserkia barne.



Urtero moduan Erketz Dantza Taldeak aureskua dantzatu du aurten ere San Pedro eguneko mezan. ISAAC FARRE



Mikel Eskisabelek gidatu ditu Okendon bildutako dantzariak. TXINTXARRI



ATLO elkarteko kideek afaria egin dute Abend Kafe Antzokian. TXEMA VALLES



San Pedro eguneko mezan ere parte hartu dute hainbat herritarrek. ISAAC FARRE



Lasarte-Oria 2020

Eskuratu 1.000€ eta gastatu 3 ordutan

1.000€

500€^{x2}

250€^{x4}

...eta gainera 500€ko bi sari eta 250€ko lau sari

Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian Uztailaren 6tik 18ra, eta parte har ezazu erosketa-bonoen zozketan

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

| | | |
|---------------------|----------------------|-------------------------------------|
| ALBA MODA | VENTANAS ALCAR | ORMAZABAL LORADENDA |
| ARKUPE TABERNA | MASAJISTA RAKEL | OSTEOPATÍA NOELIA CALERO |
| BAZAR ABREU | MERCERÍA ARITZA | FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA |
| BIDEO LAGUNAK | OIHANA ESTETIKA | ADMINISTRACIONES BARDAJI |
| NOGUES MODA | EKA YOGA STUDIO | VIÑA DEL MAR KAFETEGIA |
| MAYA LENTZERIA | LAVIE GASTROBAR | PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA |
| MERCERÍA OLMÍ | DULCE TENTACIÓN | ADMINISTRACION DE FINCAS MILLA |
| NOAOA BIDAIK | AVENIDA TABERNA | PUERTAS Y VENTANAS ZURLAN |
| ÓPTICA LIZARRI | ZAPATERÍA ITURBE | TXEMA VALLES-PUBLIBROCK |
| BAR YOLANDA | CERVECERÍA ABEND | CENTRO PSICOLOGICO DOAL |
| BAR LASARTE | OLA ENMARCACIÓN | PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA |
| PELUQUERIA MAY | ORBELA EKODENDA | CLÍNICA PODOLÓGICA AMAIA OLONDRIS |
| GIMNASIO SAITO | CLINICA DENTAL ALDAZ | ADMON. DE FINCAS SILVIA LUIS ARBIZU |
| NATURHOUSE | FERRETERÍA SUKOA | ACADEMIA DE INGLES STRATFORD |
| ORUE BOTIKA | CARREFOUR EXPRESS | BIZKER IMPRESION DIGITAL |
| MERCERÍA MAUXA | PERFUMERIA MAIANE | CENTRO DE MASAJE KIMA |
| VITERI MOVILES | CAFÉ-BAR BUENETXEA | KAIZEN MUEBLE Y DECORACIÓN |
| HALCÓN VIAJES | LOTERÍA IZAGUERRI+C | SORAYA GALLEGO MICROPIGMENTACIÓN |
| INMOBILIARIA RK | BERASATEGI KAFEAK | ELECTRICIDAD ARREGUI |
| HIRU ALDETA TABERNA | AITONAK OKINDEGIA | LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL |
| ÓPTICA IRIGOYEN | PELUQUERÍA MARBELL | ARTESANÍA INÉS FLORES |
| MABEL MODA | ARTSIER FOTÓGRAFO | NORTH TEAM NUTRIZIOA |
| BAR ORIA-TXIKI | CRISTALERIA DEL ORIA | ARAETA SAGARDOTEGIA |
| CALZADOS LEDER | DECO 75 TEXTIL HOGAR | MULTIOPTICAS LASARTE |
| PELUQUERÍA MANI'S | ADATS ORRAZTEGIA | SANTANA INFORMÁTICA |
| YOGA LASARTE | VENTANAS ISU LEIHOAK | COCINAS, BAÑOS Y REFORMAS CLOVER |
| HAUNE INTERIORISMO | BAR-CAFETERÍA BUS | IMAGINE JANTZI DENDA |
| EGUZKI TABERNA | PELUQUERÍA BEA | ZUBIETA MOTOR |
| GESTORÍA BETELU | URRIZOLA MERTZERIA | |

LASARTE-ORIAN **BIZI**,
LASARTE-ORIAN **EROSI**



Euskadi, auzolana, bien común



TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO



Ezker-eskuin: Xabier Goitia kultur teknikaria, Agustin Valdivia alkatea eta Maite Iglesias Kultura zinegotzia. TXINTXARRI

Kultura, kalera berriro

Uztaileko kultur agenda aurkeztu du Lasarte-Oriako Udalak. Okendon egingo dituzte ekintza gehienak, zortitik zazpi, protokolo zehatz bat jarraituta. Kale antzerkia, dantza, zinea eta musika kontzertuak sartuz osatu dute hilabetea amaitu arteko egitaraua

Txintxarri

Uztaileko kultur agendaren berri emateko agerraldia egin du udalak asteon. Hori aurkezteko prentsurrekora aurreko urteko urrian joan ziren azken aldiz kazetariak; agendaren formatua aldatzen zuenaren berri eman zuen udalak orduan. Beste eskuorri mota bat eta beste maiztasun batekin: hiru hilabetetako ekintzak jasotzen zituen liburuxka bat. Orain, COVID-19aren pandemiak hala eraginda, uztaile amaierara arteko emanaldiak lotu dituzte, ez baita ziurra zein bilakaera izango duen birusak. "Pixkanaka-pixkanaka saiatuko gara normaltasun berrian sartzen eta ekintzak antolatzen, ikusiko dugu nola joan gaitzkeen gero eta gehiago egiten", adierazi du Agustin Valdivia alkateak.

Segurtasun protokolo bat prestatu dute arduradunek.

Uztaileko agendako ekintza ia guztiak, zortitik zazpi, Okendo plazan egingo dituzte, "errazagoa" delako ikus-entzuleen sartu-irtenak eta euren arteko distantzia kontrolatzea, udaleko kultur teknikari Xabier Goitiak prentsurrekoan zehaztu bezala. Edukiera maximoa 200 pertsonara mugatu dute. "Plazak aukera ematen zigun 300 bat ikus-entzule sartzeko, baina nahiago izan dugu aforo murriztagoarekin hasi, errazago kontrolatzeko". Aulkiak metro eta erdiko distantziarekin jarriko dituzte plazan. Sarrera eta irteera puntu bana definituko

**OKENDO PLAZAKO
EDUKIERA MAXIMOA
200 PERTSONAKO
IZANGO DA,
AULKIETAN ESERITA**

dute, eta perimetroa moztu zuhaitzetatik arkupeetara. Antolakuntzak kontrolatuko ditu joan-etorriak. Maskara jantzita eraman beharko dute herritarrek, eta aulkietan eseri arte ez erantzi. Doakoak izango dira emanaldi guztiak. Eguraldi txarra eginez gero, bertan behera utzi edo atzeratu egingo dituzte ikuskizunak.

Lehen emanaldia, gaur

Hutsun+Ortzik irekiko du uztaileko emanaldi-sorta gaur, uztaileko 3, Okendo plazan, 19:00etan. *Urbasa* antzezlanaren ekarriko du herrira.

Uztaileko agendan sartu dute COVID-19agatik atzeratu behar izan den ekitaldiren bat edo beste. Alboka abesbatzaren kontzertua kasu. Ekain amaieran egin ohi dute, baina azkenean uztailearen 11n ariko dira San Pedro parrokan, larunbarekin, 20:00etan hasita.

Uztaileko kultur agenda: egitaraua

Gaur hasiko dira emanaldiak, uztaileko 3, ostiralez. Sarrera guztiak doakoak izango dira, edukiera maximoa bete arte.

Uztaileko 3, ostirala, Okendo plazan, 19:00etatik aurrera

- Hutsun+Ortziren eskutik, 'Urbasa' antzezlanaren.

Uztaileko 8, asteazkena, Okendon, 22:15ean hasita

- Zinea kalean. 'Isla de perros' filma. Okendo Zinema Taldeak antolatuta.

Uztaileko 9, osteguna, Okendon, 20:00etan

- Tio Teronen semeak taldearen eskutik, 'Fundamentua' antzezlanaren.

Uztaileko 11, larunbata, San Pedro parrokan, 20:00etan

- Alboka abesbatzaren kontzertua.

Uztaileko 16, osteguna, Okendon, 19:00etatik aurrera

- 'Gag Street Boys' ikuskizuna. Iñigo Salinero eta David Gutierrez bikotearen eskutik.

Uztaileko 17, ostirala, Okendon, 19:00etan hasita

- 'Ikonoak' dantza ikuskizuna, Kresala taldearen eskutik.

Uztaileko 22, asteazkena, Okendon, 22:15ean

- Zinea kalean. 'Amazing Grace' dokumentala. OZTk antolatuta.

Uztaileko 24, ostirala, Okendon, 19:00etan

- 'Piraten istorio bat' antzezlanaren, Erre Produzioak taldearen eskutik.

Natura eta gizakien arteko oreka

Hutsun+Ortzik konpainiaren 'Urbasa' ikuskizunak irekiko du uztaileko kultur agenda gaur arratsaldean, uztaileko 3, 19:00etatik aurrera Okendon. Eguraldi txarra eginez gero, bertan behera gera daiteke.

Txalapartaren oihartzunak eta lainoek natura eta lasaitasuna arnasten duten mendia inguratzen dute. Oraingo honetan ordea, armonia hori apurtuko duen bisitari baten bisita jasoko du. Hori da *Urbasa*-ren sinopsia.

Anai Gandra eta Mikel Urrutiaren Hutsun konpainiak eta Ortzik Acostak *Lurrak* ikuskizunarekin bat egin eta gero sortu zen Hutsun+Ortzik, 2019an. Hiru artista horien artean izan da gaur herrira ekarriko duten antzezlanaren ideia, eta baita antzezleak ere. Zuzendari artistikoa Pablo Ibarluzea da. 45 minutu irauten ditu, eta testurik gabeko ikuskizuna da, adin guztietako ikus-entzuleentzat.



'Urbasa' antzezlanaren irudietako bat. HUTSUN+ORTZI

Sei erosketa bonu zozkatuko ditu Aterpeak

'Eskuratu 1.000 euro!' kanpaina martxan jarri du merkatarien elkarteak. Aurten, 3.000 euro banatuko ditu guztira: urteroko 1.000 euroko sari nagusiaz gain, 500 euroko bi eta 250 euroko lau eskuratu ahal izango dituzte bezeroek

Txintxarri

Aterpea merkatarien elkarteak abiatu du aurtengo *Eskuratu 1.000 euro!* kanpainaren edizio berria. Asteazken eguerdian aurkeztu dute, eta datozen egunetan indarrean egongo den egitasmoaren nondik-norakoak azaldu dituzte. Orain arteko kanpainetan 1.000 euroko saria zozkatu dute, baina oraingo honetan, ordea, 3.000 euro banatuko dituzte 1.000, 500 eta 250 euroko erosketa-bonuetan.

Zozketan parte hartzeko, bezeroek uztailaren 6tik 18ra kontsumitu beharko dute kanpainara atxiki diren establezimenduetan. Parte hartze

data horiek pasata, zozketa Mirentxun egingo dutela iragarri dute, uztailaren 22an, asteazkenez. 1.000 euroko sariaren irabazleak 10 euroko 100 bonu jasoko ditu, baina zenbait baldintza bete beharko ditu horiek gastatu ahal izateko; Aterpeako dendetan gastatu beharko ditu, uztailaren 29an, asteazkena, 17:00etatik 20:00etara. Jakinarazi dute ezingo dituela 10 bonu baino gehiago erabili establezimendu berean.

Aurtengo berrikuntzak

Aurtengo bonu-kopurua handitu egin dute, eta ondorioz, 1.000 euroko sariaz gain 500 euroko bi bonu eta 250 euroko lau ere

banatuko dituzte. Horiek erabiltzeko baldintza bakarra ezarri dute; establezimendu bakar batean 100 euro baino gehiago ez gastatzea, ez ordea egun jakin batean eta hiru ordutan erabiltzea; iraukitze-data bat izango dute.

Gutxienez 10 euroko erosketa

Bonu bat erabiltzeko gutxieneko erosketa 10 eurokoa izango da, hortaz, adibidez, bezero batek 28 euroko erosketa egiten badu, berak erabakiko du hiru bonu (10 eurokoak) entregatzen dituen, edo bi bonu entregatu eta 8 euro bere patrikatik jartzen dituen. Argitu dutenez, erosleari ez zaio



Asteazkenean aurkeztu dute aurtengo Eskuratu 1.000 euro! kanpaina. TXINTXARRI

inolaz ere dirurik itzuliko aldeagatik.

Aterpea elkarteak eskerrak eman dizkio Lasarte-Oriako Udalarari komertzio txikia sustatzeko martxan jarritako egitasmo hau laguntzeagatik, eta, bide batez, dei egin die lasarte-oriatarrei herriko dendetara gerturatu eta euren eskura jarri duten aukera aprobetxa dezaten.

Udalak ere egin du adierazpenik aurkezpen ekitaldian. Agustin Valdivia alkatea eta Nuria Fernandez Sozioekonomia batzordeburua izan dira bertan eta azken horrek ere esker hitzak izan ditu Aterpea merkatarien elkarteko kideentzat gisa horretako egitasmoak antolatzeagatik, eta herriko merkatarien aldeko babesa eta laguntza izango dutela ere adierazi die.

**merezi
duzun
herria**

ehbildu

m

egiteko
prest.

maddalen

ZURE LEHENDAKARIA

MADDALEN
IRIARTE
OKINENA

"Babes instituzional tinkoa espero dugu"

Oriarte BHI ikastetxeko irakasle talde batek eskutitz bat bidali dio Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari. "Ardura eta atsekabea" adierazi dute sinatzaileek, COVID-19aren pandemia hasi zenetik administrazio eta arduradunengandik jasotako tratuagatik

Txintxarri

Oriarte BHI ikastetxeko irakasle talde batek erabaki du gutun bat bidaltzea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari. Koronabirusa gure artera iritsi zenetik gertatutakoa erreparatu du, eta "ardura eta atsekabea" adierazi, administrazioetik eta hezkuntza arduradunaren partetik jasotako tratuagatik. "Desados gaude ezarri zaigun lan karga eta ardurekin, tarteka berez dagozkigunak baino harago joan baitira".

Oriarteko irakasle horiek diote COVID-19aren pandemiaren eraginez larritu egin dela egoera, baina salatzen dutena ez dela berria: "Exijentzia gero eta handiagoak eta ikusten ez diren betebeharren hazkundea". Euren iritziz, "lehen unetik agerian geratu zen administrazioaren begirune falta irakasleekiko, martxoaren 13an ikasleak geletara etorri ez baina gu agertzera behartuak izan ginenetik".

"Ez dute gure iritzia entzun"

"Egoera berezi honetan, eskola nola kudeatu erabakitzeke orduan ez da hezkuntza komunitatearen iritzia aintzat hartu, eta irakasleona ere ez", adierazi du Oriarte BHiko irakasle talde horrek. "Eskuak lotuta izan ditugu, eta ez dugu erantzuteko aukerarik izan



Oriarte BHI institutua, kanpotik ikusita. TXINTXARRI

Hezkuntza Sailaren aginduen aurrean".

Lan karga biderkatu dietela salatzen dute: online irakatsi beharreko materiala egokitu beharra egun batetik bestera, klaseak bideo-deien bidez eskaintzea, horretarako prestatuta ez zegoen sistema baten ondorioz kudeaketa zailtasunak, e.a. "Baliabide pertsonalak erabiliz aparteko lan ordu luzeak izan dira, eta horrek kalte handia eragin du familia kontziliazioan. Dena, gure ikasleak atzera gera ez zitezten, eta etxeratzearen ondorioz ikasleen

artean sortutako zuloa gehiago handitu ez zedin".

Datorren ikasturtera begira "arduratuta" daudela esan du gutuna sinatzen duen irakasle taldeak. "Aukera dugu beharrezko segurtasun neurriak hartzeko, denbora dugu beharrezko giza eta baliabide materialekin horni gaitzaten, gure lana duintasunez egiteko aukera izan dezagun: formazio teknologikoa, ikasle-ratio arrazoizkoak, baliabideak, irakasle kopuru egokia...". Hori guztia esanda, "babes instituzional tinkoa" espero du taldeak.

Elkarretaratzera deitu du Aire Garbiak, 'Birziklatu' lelopean

Plataformak berak antolatu du ekitaldia, uztailaren 9an, ostegunarekin, Okendo plazan, 19:30ean hasita

Txintxarri

Aire Garbia plataformak elkarretaratze bat egingo du datorren asteko ostegunean, uztailak 9, Okendo plazan, 19:30ean hasita. Antolatzaileek azpimarratu dute helburu bikoitza daukela ekitaldiak: "Oraingoan ere Zubietako erraustegia salatu nahi dugu, eta, bestetik, Lasarte-Oria azken putz dela birziklatze-rankingean". Aire Garbia plataformaren aburuz, hirihondakinen %45 besterik ez du gaika biltzen. Gogorazi du Donostiak bakarrik dituela emaitza kaxkarragoak San Marko mankomunitatean, %40,38. "Biak oso urruti daude Gipuzkoako batez bestekotik: %54,35".

"Udal Gobernuak esaten jarraitzen du birziklatzearen alde dagoela, baina, neurri eraginkorrak hartu ordez, lurpeko edukiontzien



lazio maiatzeko manifestazioa. TXINTXARRI

inguruko erreferendum zentzugabe bat bultzatzen tematzen da", adierazi du Aire Garbiak. "Hondakinen alor horretan edozer egiteko prest daude, benetako arazoari behar bezala heltzea izan ezik".

Hilerria, hiru astez itxita

Igarobideak asfaltatzeko, asteartetik itxita dago Ilarraltzueta hilerria. Lanak bukatzeko hiru aste aurreikusi ditu Asfaltia SL enpresak. Hari adjudikatu zizkion lanak Lasarte-Oriako Udalak ekain hasieran. Obren kostua 93.121,13 eurokoa da.

Bestalde, Landaberri LHN ere egingo dira obra batzuk. Unebide Obras y Contratas SL enpresak, hain justu. Aurrekontua, 445.618,28 euro.



TXINTXARRI



NOAOA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

943 37 36 13

Ordutegia: **09:30-13:30**

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaoa.eus



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

Urtinea Loradendaren eskutik **LORE-SORTA** eder bat zozkatuko dugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena uztailaren 18a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean,
eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

Hauteskunde kanpaina murgilduta

Eusko Legebiltzarrerako bozak uztailaren 12an egingo dira, igandearrekin. Kanpaina ekain amaieran hasi da, eta Lasarte-Oriara ere iritsi da. Alderdi desberdinek kartelak itsatsi dituzte herrian barrena, eta batek baino gehiagok ekintzaren bat egin du

Txintxarri

Ekitaldiak han eta hemen. Kolore eta aldarri desberdinetako kartelak paneletan. Uztailaren 12an egingo dira Eusko Legebiltzarrerako bozak, eta kanpaina hasi da. Lasarte-Oriara ere bai. Udal korporazioa osatzen duten alderdiek ekainaren 26an bertan itsatsi zituzten afixak auzoz auzo eta panelez panel. Horrez gain, zenbait alderdik ekintzak egin dituzte egunotan, hauteskundearen harira.

Lasarte-Oriako EAJK informazio-gune bat jarri du asteazken honetan, Andatza plazan egiten duten azokan. Segurtasun neurriak betez,

kanpaina eta bozei buruzko xehetasunak eman zizkieten egun horretan eurengana gerturatu ziren herritarrei. EH Bilduk, berriz, kamioi bat prestatu du eta Gipuzkoan barrena dabil egunotan, koalizio abertzalearen aldarriak zabalduz. Astearte goizean etorri zen Lasarte-Oriara. Herrian barrena ibili, eta Okendo plazara joan zen gero.

Hauteskunde mahaiak

Ekaineko ohiko udalbatzarrean egin zuten hauteskunde mahaien zozketa. Presidente edo bokal izatea –titular zein ordeko– egokitu zaien herritarrek egun

hautetan jasotzen ari dira jakinarazpenak etxean. 22 presidente titular egongo dira eta 44 ordeko. Bokalen kasuan, 44 eta 88, hurrenez hurren. Denera 14.371 lasarte-oriatar deituta daude uztailaren 12an botoa ematera. Hamahiru barruti daude herrian, eta 22 mahai.

Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeak 2016ko irailaren 25ean egin zituzten, igandearrekin. EAJK lortu zituen eserleku gehien, 28. EH Bildu izan zen bigarren indarra, hemezortzi aukirekin. Elkarrekin Podemosek 11 aulki lortu zituen, PSE-EEk bederatzi eta PPK beste bederatzi.

Ekintzak eta kartelak



Alderdien kartelak kalean. TXINTXARRI



Informazio-gunea. LASARTE-ORIOAKO EAJ

Kartelak kaleetan

Alderdi desberdinek herriko auzoetan barrena itsatsi dituzte kartelak.



Kamioia, Okendon. EH BILDU L-O

Kamioi ibiltaria

EH Bilduren kamioi ibiltaria Lasarte-Oriara barrena ibili zen astearte goizean.

Informazio-gunea azokan

Herriko EAJK informazioa eskaini die herritarrei asteroko azokan, segurtasun neurriak betez.



PSE-EE, afixak itsasten. L-O SOZIALISTAK

Afixak itsasten

Kanpaina ekainaren 26an hasi zen, gauerdian. Orduan hasi ziren alderdiak kartelak pegatzen.

KZguneak ikastaro birtualak egingo ditu uztailaren zehar

Asteazken bi hitzaldi egingo ditu gai teknologikoei buruz, bere YouTube kanalean. Ez da aurrez izenik eman behar

Txintxarri

Ikastaro sorta bat antolatu du KZguneak hilabete amaierara arte: asteazken bi. Gai teknologikoei buruzkoak izango dira, eta horiek entzun eta ikusteko interesa

dutenek ez dute aurrez izenik eman behar. KZgunearen YouTube kanalean sartu behar dute: <https://youtube.com/user/KZguneaTICvideo/videos>. Hitzaldiak zuzenean ikusi

ezin ditzaketenean aukera edukiko dute edukiak kanal horretan ikusteko, behin ikastaroaren eguna pasa denean.

Bederatzi ikastaro antolatu dituzte: euskaraz batzuk eta gaztelaniaz besteak. Aurrenekoa uztailaren 2an egin dute, ostegunarekin, erdaraz: *Erosi etxetik irten gabe*. Beste zortzi egingo dituzte uztailaren 30era arte. Ikastaro guztiei buruzko informazioa www.txintxarri.eus atarian topatuko duzue.

KZgunearen hurrengo ikastaroak

Uztailak 7, asteartea, 18:00etatik 19:00etara

- 'Gauzen Interneta', euskaraz.

Uztailak 9, osteguna, 11:00etatik 12:00etara

- 'Heziketa eta segurtasuna Interneten', gaztelaniaz.

Uztailak 14, asteartea, 11:00etatik 12:00etara

- 'Zure diru-zorroa smartphonean', euskaraz



GOBERNATZEKO PREST



MIREN GORROTXATEGI

Lehendakari hautagaia

<http://mirengorrotxategi.eus>



Garaipena onduta itzuli da Arteaga II.a kantxara

Ibai Zabalaekin batera, Elordi eta Oier Etxebarria 20-22 garaitu zituen Arteagak. Txapelketa gutxi egongo den uda honetan, Masters Caixabankeko ordezkio izateko gogor egingo du lan herritarrak. Buruz buruko txapelketarako prest egotea ere badu helburu

Nerea Eizagirre

"Beldur nintzen". Hiru hilabeteko etenaren ostean, ostiralean, Zeanurin itzuli zen Axier Arteaga, Arteaga II.a, lehiatzen. Masters Caixabank txapelketako aurretiko partidaren Ibai Zabala izan zuen bikote eta aurrez aurre Elordi eta Oier Etxebarria. Baina partida hasi baino lehen beldur zen herritarra. "Hainbeste denbora jokatu gabe egon eta gero, azken entrenamendua ere nahiko justu egin nuen", onartu du pilotariak.

Jolasean hasi bezain pronto ordea, mamu guztiak uxatu zituen herritarrak. "Egia esan gauzak oso ondo ateratu zitzaizkidan. Sentsazio oso onak izan nituen eta oso gustura geratu nintzen egindako lanarekin. Ibai Zabalak ere bere lana egin zuen".

Partida gogorra jokatu zuten bi bikoteek Zeanuriko Ibarreta pilotalekuan. Lehen tantoak Arteaga II eta Zabalaen aldekoak izan ziren. Tarte irekitzea lortu zuten, 6-14. Baina bikote gorriak ez zuen garaipena erraz salduko eta pilotak izan zituzten lagun.

"Hasieran bazirudien partida errazago puskatuko genuela, baina gakoetako bat izan zen pilotak geratu egin zirela, moteldu ziren", azaldu du herriko pilotariak.



Axier Arteaga pilotariak sentsazio onak izan zituen itzuleran. Artxiboko irudia. TXINTXARRI

Arerioak hobeto moldatu ziren pilota motelera eta jokatzeko eremua murriztu zuten. "Oier Etxebarria ez genuen hainbeste atzeratzen eta espazioak murriztu egin ziren. Bosten barruan hasi ginen jokatzeko eta orduan, txokoko pilotetara iristen zen eta tantoa amaitzea zaildu egin zen".

Ondorioz, arerioak gerturatu ziren joan ziren. Lehenik 17na berdindu zuten, 11-3 partziala eginez. Markagailuan aurre hartu zuten berritako urdinek, 18-20, eta berehala 20na berdindu zuten

norgehiagoka Elordi eta Oier Etxebarriak.

"Azkenean larri irabazi genuen", nabarmendu du herriko pilotariak. Izan ere, ongi landutako bi tantoren ostean lortu zuten Arteaga II.ak eta Zabala garaipena.

Bikote aldaketa

Bihar, larunbata Zaldibarren izango da herritarra. Zortzi egunen ostean, berritako urdinek, Ibai Zabala, Elordi eta Oier Etxebarriarekin batera jokatu du herritarrak. Oraingoan, aldiz,

ASPEko Oier Etxebarria izango du bikotekide.

Lehen aldia da Oier Etxebarriarekin batera jokatu duena. "Ea ongi moldatzen garen. Ea sentsazio onekin amaitzen dudun, gustura sentitzen naizen kantxan eta aurrekoan bezalako partida bat egiten dudun", adierazi du Arteaga II.ak. Izan ere, lehengo asteko partida ikusita, larunbateko ere gogorra izango dela iragarri baitu herritarrak.

Ordezko izan

Arteaga II.ak onartu duenez, bere onena eman nahi du jokatu dituen partidetan. Herrietako jaialdiak bertan behera geratu direnez, Masters Caixabank txapelketatik kanpoko partida gutxi iragarriko direla uste du herritarrak. "Uda honetan, txapelketa ofizial bakarra egongo dela dirudi, Masters Caixabank. Beraz, txapelketa bateko partidaren bat jokatzeko aukera bakarra izango litzateke ordezkio moduan jokatu ahal izatea. Eta horretan saiaturiko naiz ahalik eta maila onena ematen eta erakusten, ordezkio izateko".

Hala ere, badu beste helburu bat buruan, buruz buruko txapelketa. Abuztutik aurrera, prestatzen hasteko asmoa duela iragarri du.

Emakume Master Cupa

Gizonezko pilota profesionaleko partidak ez ezik, beste hitzordu garrantzitsua ere izan zen lehengo igandean, ekainaren 28an, Emakume Master Cup txapelketako finalak.

Irungo Uranzu pilotalekuko bikotekako partidetan ez zen herritarrik izan; esateari lanetan ordea, Ane Arteaga herritarra egon zen. Pilotaria da bera ere.

Arteagak Iñigo Aiestaran eta Ane Muruamendirazekin batera egin zuen partidaren garaipena eta pilota goxoko txapelketa jokatu izanagatik, lehen finaleko bikotei buruzko ekarpenak egin zituen.

Intzak ere lehia hasi du

Intzako kideek ere eman diote hasiera denboraldi berriari. Zikuñagako Txapelketaren bigarren edizioa eta Villabonako Santos Txapelketan martxan daude eta bertan izango dira herriko taldeko pilotariak.

Hernaniko txapelketa ekainaren 29an hasi zen eta maila ezberdinetako 51 bikote ari dira lehiatzen, uztailean 25ean jokatu diren finalak iristeko.

Villabonako Santos txapelketan, berriz, senior mailako zortzi bikote bakarrak parte hartuko dute. Lehiaketa asteartean hasi zen eta uztailean 11an erabakiko da txapelketa.

Jon Pello Artetxe Intzako pilotari seniorra bi txapelketetan lehiatuko da. Villabonako txapelketan EPLEko Odriozola du bikotekide eta bart edizioa bidali ostean jokatu zuen final-laurdena Eskudero eta Urruzolaren aurka. Hernanin, ordea, Intxurreko Irazustabarrena izango du kide.

Zikuñagako lehiaketan, bada Intzako beste pilotaririk, Urdanpilleta. Honek kadeteko bigarren mailan jokatu du Hernaniko Manterola kide duela,

UDAN, TXAPELKETA BATEKO PARTIDAK JOKATZEKO AUKERA BAKARRA ORDEZKO MODUAN LITZATEKE

Saleta, Aviron Bayonnaisera

Alex Saleta Atorrasagasti gazteak bere errugbi ibilbidean pauso berria eman du. Ekainaren 26an, Aviron Bayonnais taldearekin bi urteko kontratua sinatu zuen. Era honetara, munduko ligarik onenetarikoan ontzeko aukera izango du. Baionako taldeko *espoir* edo etorkizuneko taldean lan egingo du herritarrak, ikasketak eta errugbia uztartuz.



A. VEGA

Futbol, saskibaloia eta boleibol, behin betiko izena ematea martxan

Ostadar SKT klubak zehaztu duenez, sail batzuetan beharrezkoa izango da behin betiko izena ematea uztailean 1etik 10era bitartean: futbol, saskibaloia eta boleibol taldeetan, hain justu. Datozen egunetan, aurrez apuntatu diren kirolariei informazio eguneratua bidaliko die Ostadarrek, COVID-19aren egoera zein den kontuan hartuta.

Honako eduki hauek jasoko dituzte sail horietan aritu nahi duten pertsonak: behin betiko izena emateko formularioa, kuotak, kirol bakoitzaren inguruko xehetasunak...

Aurrez izena emateko epea bukatu bada ere –ekainaren 21a izan zen azkeneko eguna, igandea–, norbaitek Ostadarren kirola egin nahi badu 2020-2021 denboraldian, 943 36 04 33 telefonora hots egin dezake edo mezu bat bidali ostadar@ostadarskt.eus helbide elektronikora.

MULTIÓPTICAS

GURE IKUSMENA ZAINZKEKO AHOLKUAK

Konfinatuta egon bitartean, egunak eta egunak pasa ditugu aire zabalean jarduerarik egin gabe. Gure begiek, ordea, gehiegizko karga bat izan dute: orduak pasa ditugu telelana egiten, ordenagailu aurrean, mugikorrekin, eskolako lanak egiten, irakurtzen...


Pertsonen **60%ak** dio molestiaren bat sentitu duela konfinamenduan zehar pantailak erabiltzeagatik.

Pantailaren aurrean ordu asko pasatzearen síntoma ohikoenak hauek dira: buruko mina, begietan azkura izan eta gorritzea, lehortasun okularra, behar bezala fokuratzeko zailtasuna eta ikusmenaren okertzea.

**SCREEN
POLLUTION**
BY MULTIÓPTICAS

Biztanlegoaren **60%** ak baieztatu du, itxialdian, pantailen gehiegizko erabileraren ondorioz kalteak somatu dituela ikusmenean

PANTAILEN GEHEGIZKO ERABILERAK SOR DITZAKEEN ONDOEZAK:



Multiópticasen gure bezeroen ikusmenaren osoko zainketa egiten dugu:

Detektatzen

Zergatik pairatzen ditugu molestiak gure begietan eta ikusmenean?

Distantzia laburrean egin beharreko zereginek eragiten dute **lehortasun okular handia** izatea, inkontzienteki murriztu egiten ditugulako erreflexuz egindako kliskak. Horrek eragiten du malkoak gehiago lurruntzea.

Gailu elektronikoek igortzen duten argi urdin-bioletak uhin motzeko luzera dauka, eta energia asko. Horrek **nekatu eta estresatu egin dezake gure ikusmena**, eta makulan dauden zelulak kaltetu. Begiaren atzealdean dagoen ehun sentikor bat da makula, eta ez dauka birsortzeko gaitasunik.

Ohitura osasuntsuak sustatzen

- Atsedean hartu** 20 minuturo, 20 segundoz zugandik urrun dagoen zerbaiti begiratu.
- Kliska egin** noizean behin, 10 aldiz gutxienez, begiak hezetzeko.
- Argi naturalarekin **argiztatu** ahal den guztietan
- 40 eta 70 zentimetro arteko distantzia mantendu mugikor, tablet eta ordenagailuarekiko, eta bi metro baino gehiagokoa telebistarekiko.

Punta-puntako teknologiadun produktuak eskaintzen

- Lente babesgarriak, elementu hauen aurrean:
 - ✓ **Izpi ultramoreak**, kanpoaldean funtsezkoak.
 - ✓ **Argi urdina**; tratamendu garatuenean portzentaje handiagoan blokeatzen dute eta gardenak dira, hondar-kolorerik gabe.
- Ukipen-lenteak:
 - ✓ Argi urdinetik babesteko **filtro babesgarriekin**.
 - ✓ Distantzia laburrak denbora luzez fokatu behar direnean, lan hori erosoago egiteko laguntza eskaintzen dute, neke bisuala saihesteko.
 - ✓ Ukipen-lente **multifokal pertsonalizatuak**: lente oftalmiko garatuenean osagarri ezin hobeak.
- Lenteak ongi garbitu eta hidratatzeko eta maskarak erabiltzeagatik ez lausotzeko **likido-sorta** zabal eta osatuena.

ARGI URDINETIK BABESTEKO
EKIPAMENDUA
BETAURREKOA
+
LENTILLAK
(6 hilabete)

199€

BaliOgarria 2020/07/31 arte. Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

BABESTU ZURE BEGIAK PANTAILETATIK



P.P.S. 175715 L.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

Futbol taldeak pausoz pauso zelaira itzuli dira

Texas Lasartearrak entrenamenduak hasi ditu eta Ostadar SKTk hurrengo asteetan egingo ditu lehen saioak. Iraia Iparragirrek, berriz, kontratua berri du Realarekin bi urtez eta Añorgak sailkapen partidako arerioa ezagutu du, UD Aldaia CF

Txintxarri

Kirol jarduerak ere normaltasunaren bidean dira eta horren erakusle, herriko kirol taldeak dira. Pausoz pauso denboraldi berriari begira lanean hasi dira eta batzuk dagoeneko kirol instalazioetan ari dira entrenatzen.

Texas Lasartearra taldeko kideak izan dira lehenetarikoa. Lehengo astean hasi ziren lanean eta aste honetan alebinak ere izan dira Michelin Kirol guneko futbol zelaian entrenamenduak egiten.

Segurtasun neurriak jarraituz, entrenatzaileen azalpenak adi entzun eta taldeetan banaturik ariketa ezberdinak egin dituzte.

Ez dira aurki zelaian bakarrik izango. Ostadar SKTko futbol taldeek koordinatzaileak jakitera eman duenez, Ostadarreko taldeak hurrengo asteetan hasiko dute euren jarduna. Taldeak pozarren daude berriro ere zelaian entrenatu ahal dutelako.

Iparragirrek, beste bi urte

Berri onak ere izan dira Iraia Iparragirre futbol jokalariaentzat azken egunetan. Herritarrak kontratua berri du Realarekin eta 2021-2022 denboraldia amaitu arte, gutxienez, talde txuri-



Texas Lasartearrako alebinak larrialdi-egoera osteko lehen saioan. TEXAS LASARTEARRA

urdineko jokalarari izango da. Lasarte-orientarrak bost denboraldi daramatza Realan; seigarrenari ekingo dio hurrengo urtean.

UD Aldaia CF, Añorgaren aurkari

Iraia Iparragirrek bere etorkizuna argi badu ere, Añorga taldeak uztail amaiera arte itxaron beharko du hurrengo denboraldian zein mailatan lehiatuko den jakiteko. Bien bitartean, gogor entrenatzen ari da.

RETO Iberdrola sailkapen fasea jokatuko du Javi Solchaga

herritarrak zuzentzen duen taldeak Las Rozaseko Futbol hirian, Madrilen, eta atzo argitu ziren zalantzetako batzuk: eguna eta arerioa.

Añorgak UD Aldaia CF taldea izango du aurrez aurre uztailaren 25ean, larunbata arratsaldean. Partida irabazten duen taldeak RETO Iberdrolarako sailkapena eskuratuko du. Atzo eguerdian egin zen zozketa Las Rozaseko Futbol hirian bertan eta sailkapenean parte hartuko duten taldeetako lau ordezkariaren esku egon zen partidaren patua.



Atletismoaz gozatzeko eskolak eskainiko ditu Ostadar SKTk

Zortzi eta hamahiru urte arteko gaztetxoei zuzendutako ekimena da. Astean hiru egunetan egingo dituzte saioak

Txintxarri

Ostadarreko Atletismo atalak Atletismo aisia eskolak eskainiko ditu uztailaren, zortzi eta hamahiru urte bitarteko gaztetxoentzat. Uztailaren 6tik 30era egingo dira saioak, Michelingo Kirol guneko atletismo pistan.

Astean hiru egunetan, astelehen, asteazken eta ostegun, ordubetez atletismoan trebatzeko aukera izango dute gazteek Ostadarreko entrenatzaileen eskutik. 10:00etatik 12:30era txandaka parte hartu ahaliko da ekimenean.

Atletismo ataldeko arduradunek jakitera eman dutenez, ekimen

honek bi helburu ditu: batetik, atletismoko trantsizio-etapa bat egitea da, irailean jarduerara itzultzeko, eta bestetik, atletismoa probatu nahi duenari aukera bat ematea.

Izena ematea hilabete osokoa, 30 euro, edo erdikoa, 20 euro, izan daiteke. Inskripzioa 667 048 756 zenbakian edo aberakoetxea@gmail.com posta elektronikoa egin behar da. Izena ematen duten haurren eta adinen arabera antolatuko dira taldeak.

Ataleko arduradunek nabarmendu duten bezala, "jarduera hau ez da Ostadarreko atletentzat bakarrik, interesa duten guztientzat dago irekita".

Udal Kirol Zerbitzuak udako kirol jarduerak antolatu ditu

Uztailaren 13tik abuztuaren 6ra bitartean, Maialen Chourraut kiroldegian indoor txirrindularitza, tonifikazioa, pilates eta bodyzumba eskainiko ditu Udal Kirol Zerbitzuak, goizeko zein arratsaldeko saioan.

Matrikula egiteko epea uztailaren 8an zabalduko dute eta izena emateko kiroldegira deitu beharko da 943 376 182 zenbakira.

Udaleko Kirol Zerbitzuak protokolo bat diseinatu du jarduerak bakoitzeko parte hartzaileen segurtasuna zaintzeko. Horren berri emango diote partaide bakoitzari izena eman duela baieztatu ondoren.

Hipodromoko seigarren jardunaldian, ikusleen itzulera

Edukieraren %60a bete ahaliko da eta ezingo da eserlekuetatik altxa, ezta apusturik egin ere

Txintxarri

Ekainaren 3an eman zion hasiera 2020-2021 denboraldiari Donostiako Hipodromoak. Geroztik, jokatu diren bost jardunaldietan profesionalak eta Hipodromoko langileak

bakarrik egon dira bertan lasterketak ikusten eta jockeyen oihuek Hipodromoko harmail hutsak betetzen zituzten.

Gaur, ordea, 11:15etik aurrera, zaleen berotasuna sentitu ahaliko dute berriro ere, Donostiako

Hipodromoak asteazkenean jakinarazi zuenez.

Indarrean dauden osasun neurriak jarraituz, zenbait muga izango dira. Esate baterako, edukiera maximoa %60koa izango da, hau da, 1.000 pertsona egon daitezke, profesionalak eta Hipodromoko langileak barne. Sarrerak leihatilan erosi beharko dituzte eta maskara jantzita eraman derrigorrez. Jardunaldiak iraun bitartean ezingo dute eserlekuetatik altxa, eta apusturik egin ere ez.



Gaur arte, profesionalak eta kazetariek bakarrik eseri ahal izan dute harmailtan. TXINTXARRI



**“Ikasi dut
maskara
eramatea
besteak
zaintzea dela”.**

Aitor Izagirre
GURUTZE GORRIA GIPUZKOA

Erantzukizuna. Ni zaindu egiten naiz. Zuk ni zaintzen nauzu. Hori da erantzukizuna. Ez gehiago, ez gutxiago. Eskuzabaltasun ekintza bat da, egoera honetatik garena izanda irteten utziko diguna: lurralde batua eta solidarioa. Orain eta etorkizunean.

#AurreraEgitekoGogoratu

**Asko ikasi dugu.
Ez dezagun ahaztu.**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



June
Zorionak bihotza zure 10. urtebetetzean. Zure egunean oso ondo pasa izana espero dugu. Asko maite zaitugu. Marrubizko 10 muxu familiaren partetik



Oier
Zorionak Poxpolin! Zenbat denbora egun honen zain eta azkenean iritxi dira zure 3 urte handiak! Zorionak artista, izugarri matte zattugu!



Alex
Zorionak Alex! Sei belarri-tiralidi goxo eta leun! Asko maite zaitugu! Ama, aita eta Kenairen partetik. Muuuuack.




Helene
Zorionak bihotza!!!! Zure guraso eta familiaren partetik. Asko maite zaitugu!!!!




Iñigo
Boooooonnnbbbaaaaa!!! Badatoz, badatoz 28ak eta horiekin batera fundam entua! ZORIONAK, BOSS! Orain arteko fundam entua ere earra! Belarri bat...edo bi gaur zure kontu e! Besarkada bat Ttakuneko lankideon partez!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 3




Larunbata, 4




Igandea, 5




Astelehena, 6




Asteartea, 7



Asteazkena, 8



Osteguna, 2



HILDAKOAK

Candido Bizarro Zanca. Ekainaren 29an.
Maria Linge Viedma. Ekainaren 28an.
Valentina Barrera Molino. Ekainaren 27an.
Tomas Baile Carral. Martxoaren 30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 3 GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 4 DE MIGUEL
IGANDEA, 5 DE MIGUEL
ASTELEHENA, 6 DE URUE
ASTEARTEA, 7 DE MIGUEL
AZTEAZKENA, 8 LASA
OSTEGUNA, 9 GIL

EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE URUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLEDGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Liburuen bigarren eskuko azoka, Oriarte BHI

Oriarte Institutuko Oriarte kide guraso elkarteak familiek 2020-2021 ikasturteko liburuak erosi ahal izateko DBH3 mailatik 2. Batxilergo mailarako liburuen bigarren eskuko azoka antolatuko du, Oriarte institutoko Larrekoetxe eraikinean.

DBH3, DBH4 eta 1. Batxilergo mailatako liburuak uztaillaren 1an eskuratu ahal izan eta gero; 2. Batxilergoko liburuak, uztaillaren 17an, 16:00etatik 17:30era erosteko aukera izango dute hurrengo ikasturtean maila hori egin behar duten ikasleen familiek.

Liburuak saldu nahi dituzten familiek uztaillaren 15ean, 16:30etik 18:00etara eraman behar dituzte dituzte Oriarteko Larrekoetxe eraikinerara.

Liburuek egoera onean egon beharko dute, "puskatu gabe, eta erabilgarri." Guraso Elkarteak egiaztatuko du liburuen egoera.

Guraso elkarteak jakitera eman duenez, liburuak gaur egun duten prezioaren erdian baloratuko dira.

SUDOKUA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 8 | | | 9 | | 2 | |
| | | | | 8 | | | |
| 9 | | 2 | 5 | 4 | 1 | | |
| 3 | 6 | 7 | | | 5 | | |
| | | | | 6 | 3 | | |
| 5 | | 1 | | 3 | | 6 | 2 |
| 7 | | 8 | | 5 | | 9 | |
| | | 6 | 7 | | 9 | 8 | 4 |
| | | 9 | | 6 | 8 | | 1 |

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Lasarte-Oriako bi neska gazte gara; udaran haurrak zaintzeko prest gaude. Haurrek udaran eskolako errefortzu lanak egin nahi balituzkete ere prest egongo ginatete laguntzeko. Deitu edo bidali whatsapp bat zenbaki hauetara: 688 777 280 edo 610 325 280.

Lan bila ari naiz Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila asteburuatarako Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

27 urteko neska euskalduna abuztuan haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Haur Hezkuntzan graduatua. Interesatuak deitu telefono honetara: 695 757 287.

Haurrak zainduko nituzke, irailetik aurrera,

ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN

Udarako hilabeteatarako etxea alokatzen da, Punta Umbrian, Huelvan. Bi igerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. 943 376 115/615 645 126.

Etxea partekatzen neska baten bila gabilta. Interesatuak jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da lasarten bizi dan familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanatarako zenbakia, 661 39 62 99.

SALEROSKETAK

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 300 euro. 646 824 466.



EROSI

Bigarren eskuko ondo dagoen bizikleta hartuko nuke 3-4 urteko ume batentzat. 687 35 50 95.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publikizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publikizitatea@ttakun.eus 646.824466

ZOKKETAK

Bazkide zozketa

Ttakun Kultur Elkarteko ekaineko bazkide zozketaren irabazlea Ainhoa Zamarreño izan da, zorionak! MimoZ koadernaketaren eskuz egindako bi kuaderno eskuratu ditu.



Hasi berri dugun hilabete honetan ere izango dugu zozketa berri bat! Oraingoan, Urtinea loradendaren eskutik, lore-sorta eder bat eskuratzeko aukera izango da; izena ematen duten bazkideen artean egingo da zozketa. Uztailaren 18ra arte egin ahalko dute izen ematea interesatuek, bazkidetza@ttakun.eus helbidera edo 646 824 466 whatsapp zenbakira idatzita.


Gutunak bidaltzeko

Posta elektronikoa

txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, NAN zenbakia eta nahi duzun testua.

Osteguneko 12:00ak arte jasotako gutunak argitaratuko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---------|----------|-----------|----------|
| 08:00 | 08:10 | 08:15 | 08:20 |
| 08:40 | 08:50 | 08:55 | 09:00 |
| 10:00 | 10:10 | 10:15 | 10:20 |
| 10:30 | 10:40 | 10:45 | 10:50 |
| 11:30 | 11:40 | 11:45 | 11:50 |
| 12:30 | 12:40 | 12:45 | 12:50 |
| 13:00 | 13:10 | 13:15 | 13:20 |
| 13:30 | 13:40 | 13:45 | 13:50 |
| 19:30 | 19:40 | 19:45 | 19:50 |
| 20:00 | 20:10 | 20:15 | 20:20 |

- 12 plaza erabilgarri izango ditu.
- Segurtasun tartea mantendu beharko da, nahitaezkoa izango da maskara (bakoitzak bera eraman beharko du)
- Txartelarekin bakarrik ordaindu ahal izango dute

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



**GIPUZKOA
PASSPORT**

**Uda Gipuzkoan
gozatzeko
pasaportea**

Jaso zurea Turismo Bulegoetan

www.gipuzkoaturismoa.eus #VisitGipuzkoa

**GIPUZKOA
TURISMOA**

**GIPUZKOA
PASSPORT**



**URKULLU
LEHENDAKARI**

**EUSKADI
ZUTIK**
aterako gara!!

eman botoa

**eaj
PNV**

EAJ-PNV.EUS

f t i